

ISEI - IVEI

**Rs2.2.6. CURRICULUM KONPETENTZIA DBHko 2.
MAILAN: GIZARTEA ETA HERRITARTASUNA.**





ISEI-IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

Edizioa: 2014ko martxoa
© ISEI-IVEI-k argitaratua

ISEI-IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatuta eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco
Inmaculada Tambo
José Ramón Ugarriza
M^a Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

M^a Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



Rs2.2.6

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:
Gizartea eta herritartasuna.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Sarrera	4
Rs2.2.6.1 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek, <i>Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian eta Gizarte-errealitatea, Herritartasuna eta Bizikidetza</i> dimentsioetan lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.	6
Rs2.2.6.2 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera <i>Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.	7
Rs2.2.6.3 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek <i>Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian</i> lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).	8
Rs2.2.6.4 taula: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa <i>Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen ISEK (indize sozio-ekonomiko eta kulturala), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza.	9
Rs2.2.6.4 grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa <i>Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen ISEK (indize sozio-ekonomiko eta kulturala), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza.	10



Rs2.2.6

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:
Gizartea eta herritartasuna.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2010 eta 2013¹.

Adierazle honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaizak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2010ean eta 2013an gauzatu ziren Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzak dira, 250 puntuko batez bestekoa, 50 puntuko desbiderapen tipikoa eta hiru errendimendu-maila dituen eskala batean.

Emaizak zenbait aldagai kontuan izanik aztertu dira: ikasleen sexua, dimentsioak (*Gizarte-errealitatea*, *Herritartasuna*, *Bizikidetza*), geruza (hezkuntza-sarea² eta irakasteredua³), indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmalarekiko egokitasuna (jaioturtearen arabera), gurasoen ikasketa mailarik altuena, jaiolekua eta familiako eta probako hizkuntza.

EAE n 2010 eta 2013. urteetan, DBHko 2. mailako ikasleen % 46,3 eta % 47,5, hurrenez hurren, sare publikoan zeuden eta % 54,8 eta % 52,5, itunpeko sarean.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian batez besteko puntuazio orokorra, 2013. urtean (246), 2010.ekoa (250) baino 4 puntu baxuagoa izan zen. 2010an eta 2013an, nesken batez besteko puntuazioa mutilena baino altuagoa izan zen 19 puntu eta 12 puntu, hurrenez hurren.

2010 eta 2013. urteetan eta Kompetentziaren hiru dimentsioei dagokienez (*Gizarte-errealitatea*, *Herritartasuna* eta *Bizikidetza*), neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte dimentsio guztietan. Diferentzia 2013an 2010ean baino txikiagoa izan da: *Bizikidetzan* 21 puntutik 14 puntura, *Herritartasunean* 20 puntutik 13 puntura eta *Gizarte-errealitatean* aldea 9 puntutik 4 puntura murriztu da.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian errendimendu-mailetakoko ehunekoak, 2013ko Ebaluazio Diagnostikoan, ehuneko handienetik txikienera ordenaturik, honako hauek izan dira: erdiko maila (% 60,9), maila aurreratua (% 24,1) eta hasierako maila (% 15,0). 2010tik 2013ra hasierako maila eta maila aurreratua (2,5 puntu) eta (6,8 puntu) jaisten dira, hurrenez hurren, eta erdi maila igotzen da. Bi urteetan, maila aurreratuan eta erdiko mailan, nesken ehunekoa mutilena baino handiagoa izan da eta hasierako mailan, berriz, mutilen ehunekoa neskena baino handiagoa izan da. 2010tik 2013ra, sexuari dagokion diferentzia, hasierako maila eta maila aurreratua (3 puntu) eta (4,3 puntu), hurrenez hurren, jaisten dira eta erdiko mailan (1,2 puntu) igotzen da.

¹ Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2010 eta 2013. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

² EAE n bi hezkuntza-sare daude, publikoa eta itunpekoa, biak diru publikoarekin finantzatuak.

³ EAE n hiru irakasteredu daude: A erdua (irakas-hizkuntza gaztelania), B erdua (irakas-hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D erdua (irakas-hizkuntza euskara).



Rs2.2.6

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gizartea eta herritartasuna.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Batez besteko puntuazioak geruzen arabera aztertzen ditugunean, 2013an, puntuaziorik altuena (267) itunpeko A ereduan izan dela ikus dezakegu, eta gero itunpeko D ereduan (251) eta B ereduan (246). Sare publikoan puntuaziorik altuena A ereduan (242) izan da, eta ondoren D eredua (241) eta B eredua (227). 2010etik 2013ra, A eredu publikoa 6 puntu igotzen da, D eredu publikoa berdin mantentzen da eta beste geruzak jaisten dira.

2013.ko Ebaluazio Diagnostikoan, *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako* erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko handiena duten ikasleen profila honako hau da: adinagatik dagokion irakasmilan dago (% 89,1), gurasoek goi mailako ikasketak bukatu dituzte (% 89,8), eta ISEK indize altua du (% 90,2). Ikaslearen ehunekoa erdiko mailan eta maila aurreratuan, etxeko hizkuntza euskara ez denean, , proba gaztelaniaz egitea (% 90,9) euskaraz egitea (% 81,5) baino 9,4 puntu handiagoa da. Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila hau da: irakasmila errepikatu du (% 67,3), gurasoek ez dituzte bukatu derrigorrezko ikasketak (% 67,7), ISEK indize baxua du (% 77,1) eta etorkina da (% 79,2).



Rs2.2.6



Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gizarte eta herritartasuna.



Rs2.2.6.1 taula eta grafikoa:

DBHko 2. mailako ikasleek, *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian eta Gizarte-errealitatea, Herritartasuna eta Bizikidetzan* dimentsioetan lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.

		2010	2013
Guztira	Guztira	250	246
	Neskak	260	252
	Mutilak	241	240
<i>Gizarte-errealitatea</i>	Guztira	250	250
	Neskak	254	252
	Mutilak	246	248
<i>Herritartasuna</i>	Guztira	250	250
	Neskak	260	257
	Mutilak	240	244
<i>Bizikidetzan</i>	Guztira	250	250
	Neskak	261	257
	Mutilak	240	243



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa, 2010 eta 2013.



Rs2.2.6

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gizartea eta herritartasuna.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA




Rs2.2.6.2 taula eta grafikoa:


DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.

	HASIERA			ERDIA			AURRERATUA		
	Errendimendu maila			Errendimendu maila			Errendimendu maila		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2010	17,5	11,3	23,4	51,6	51,9	51,3	30,9	36,8	25,3
2013	15,0	10,5	19,4	60,9	61,8	60,1	24,1	27,7	20,5


■ Hasierako maila ■ Erdi-maila ■ Maila aurreratua



■ Hasierako maila ■ Erdi-maila ■ Maila aurreratua



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa, 2010 eta 2013.





Rs2.2.6

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:
Gizartea eta herritartasuna.



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.6.3 taula eta grafikoak:

DBHko 2. mailako ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).

	2010	2013
A Publikoa	236	242
B Publikoa	233	227
D Publikoa	241	241
A Itunpekoa	270	267
B Itunpekoa	258	246
D Itunpekoa	253	251
Guztira	250	246



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa, 2010 eta 2013.



Rs2.2.6

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gizartea eta herritartasuna.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.6.4 taula:

DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoak *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen ISEK (indize sozio-ekonomiko eta kulturala), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza.

	Ikasle %		Hasierako	Erdi-	Maila	
	2010	2013	maila	maila	aurreratua	
				2013		
ISEK	Maila baxua ²	19,1	18,5	22,9	60,4	16,7
	Maila ertain baxua ²	21,5	23,8	17,8	61,9	20,3
	Maila ertain altua ²	28,4	27,8	12,9	63,4	23,6
	Maila altua ²	31,0	29,8	9,8	58,1	32,1
Egokitasuna	Adina bat dator ikasmalarekin	79,5	81,2	10,9	61,6	27,4
	Adina EZ dator bat ikasmalarekin	20,5	18,8	32,7	57,8	9,5
Titulartasuna	Publikoa	45,4	46,3	18,1	63,3	18,6
	Itunpekoa	54,6	53,7	12,3	58,9	28,8
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrigorrezko ikasketak bukatu gabe	3,1	3,5	32,3	58,1	9,6
	Derrigorrezko ikasketak	15,8	16,1	23,1	62,7	14,2
	Batxilergoa, HZ	32,6	34,3	15,4	64,2	20,4
	Goi mailako ikasketak	41,4	46,1	10,2	58,1	31,8
Jaioterria	Autoktonoa	92,7	92,1	14,5	60,9	24,6
	Emigratzailea	7,3	7,9	20,8	61,4	17,8
Familia-hizkuntza* euskara	Probaren hizkuntza euskara	97,8	98,8	10,7	60,4	28,9
	Probaren hizkuntza gaztelania	2,2	1,2	12,8	43,6	43,6
Familia-hizkuntza* euskara EZ	Probaren hizkuntza euskara	63,0	74,0	18,5	63,8	17,7
	Probaren hizkuntza gaztelania	37,0	26,0	9,1	53,5	37,4

*2010. urtean, ikasle kopuru txiki batek ez zion etxeko hizkuntzaren galderari erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa, 2010 eta 2013.



Rs2.2.6


Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gizartea eta herritartasuna.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.6.4 grafikoa:

DBHko 2. mailako ikasleen ehuneko *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK (indize sozio-ekonomiko eta kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza. 2013 urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa, 2013.